

UDALBATZAREN OSOKO BILKURA

2017ko uztailaren 27ko ohiko bilera

BERTARATUTAKOAK:

ALKATE-UDALBURUA

M^o CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

ZINEGOTZIAK

Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA
IKER AGIRRE BARTZENA (1)
IDOIA BLASCO CUEVA
XABIER LOSANTOS OMAR
DIONI ANDRES BLANCO

Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ
DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN(2)

EH-Bildu Leioa

JOKIN UGARTE EGURROLA
NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ (3)
ARITZ TELLITU ZABALA

Euskal Sozialistak

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES
ENARA DIEZ OYARZUN
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

Leioako Alderdi Popularra

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

BERTARATU EZ DIRENAK:

Euzko Abertzaleak

ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA

EUSKARA-ITZULTZAILEA

KOLDO BIGURI JN.

BEHIN-BEHINEKO KONTU-HARTZAILEA

JON BILBAO ARBERAS JN.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

CHIARA CAMARÓN PACHECO AND.

(1) 19:58an heldu da, 2. puntua eztabaidatzen ari zela.

(2) 21:00etan joan da, 3. puntua eztabaidatzen ari zela.

(3) 21:55ean joan da, 4. puntua eztabaidatzen ari zela.

Leioako udaletxean, elizate honetako Udaltzarak osoko bilkura egin du bi mila eta hamazazpiko uztailaren hogeita zazpian, hemeretziak eta hamar minutuan. Buru izan da **CARMEN URBIETA GONZALEZ alkate-udalburua**, eta alboan agertzen diren zinegotziek parte hartu dute, zeinek Udaltzara izatez eta eskubidez osatzen duten kideen legezko gehiengo osatu duten; **CHIARA CAMARÓN PACHECO idazkari nagusiaren** laguntza izan dute, eta helburua ohiko bilera egitea izan da, Tokiko Araubidearen Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.1. artikularen ondorioetarako. Alkate-udalburuak alde aurretik dei egin die bertaratutakoei, lehen aipatutako legearen 21.1.c) artikularekin bat etorritik, eta Herritarrek Parte Hartzeko Leioako Araudi Organikoak, 2013ko ekainaren 27ko osoko bilkuraren erabakiz onetsi eta urte bereko irailaren 23ko 182 zenbakidun BAO n argitaratutakoak, 22. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoa betez.

Aipatutako orduan, Udaltzarak ekitaldiari hasiera eman dio, lehenengo deialdian, eta, jarraian, ohiko bilera horren gai-zerrendari heldu zaio.

I.- EBAZPEN-ZATIA

0.- ESNATU LEIOA UDAL-TALDEKO ZINEGOTZIAK KARGUAZ JABETZEA

Uztailaren 14an, sarrera-erregistroan jaso zen, hauteskunde-batzorde zentralak igorrita, Angela Verdejo Tarazaga zinegotziaren egiaztatutuna (8016/17 zk.) Begoña Juaristi Linacero andrearen ordean, haren uko egitea zela-eta, eta, lehenago, Xosé Antón Cambeiro Oreiro jaunak aurrez uko egin izanaren ondorioz. Izan ere, Verdejo andrea Esnatu Leioa alderdiak 2015eko maiatzaren 24ko toki-hauteskundeetara aurkeztutako hautagaien zerrendan agertzen da.

Uztailaren 21ean, adierazitako egiaztatutuna eman zitzaion interesdunari, osoko bilkura honetarako deialdia eta gai-zerrendarekin batera; halaber, berariaz adierazi zitzaion Udalaren Idazkaritza Nagusian aurkeztu behar zuela aldez aurretik bere ondare-ondasunen eta lanbide-jardueren aitortpena, karguaz jabetzeko. Hori guztia apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7. artikuluan xedatutako ondorioetarako. Geroago, bere zinegotzi karguaren betebeharrak zintzotasunez betetzeko zina edo agindua eman behar zuen Udalbatzaren aurrean, Hauteskunde Arabide Orokorrari buruzko 1984ko ekainaren 19ko Lege Organikoaren 108.8. artikulua betez.

Zinegotzi hautetsiak, ordea, ez ditu aipatutako aitortpenak aurkeztu, eta ez da osoko bilkurara bertaratu ezta ere; beraz, ez da karguaz jabetu.

1.- 2016KO EKITALDIAREN KONTU OROKORRA

Udalbatzaren osoko bilkurara aurkeztu dira, onetsi egin ditzan, Ogasuneko, Ondareko eta Kontu Bereziatiko Informazio Batzordearen 37. eta 44. Irizpenak, 2017ko maiatzaren 30eko eta uztailaren 18ko bileretan emanak, hurrenez hurren (espedientean jaso dira horien egiaztagiria).

UDALBATZAREN ERABAKIA

Proposamena irakurri eta bozkatu ostean, aldeko hamar botoren gehiengoarekin (bilerara bertaratuak Euzko Abertzaleak taldeko zazpi zinegotzien botoak eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzienak) eta zortzi abstentziorekin (bilerara bertaratuak Euzko Abertzaleak taldeko hiru zinegotzienak, EH-Bildu Leioa taldeko hiru zinegotzienak eta Leioako Talde Popularreko bi zinegotzienak) Udalbatzak honako hau **erabaki du**: 2016ko kontu orokorra onestea, Bizkaiko toki-entitateen kontabilitatearen arau-esparrua ezarri zuen uztailaren 28ko 139/2015 Foru Dekretuaren 51. arauak xedatutakoa betez, eta Ogasuneko, Ondareko eta Kontu Bereziatiko Informazio Batzordearen txostenean oinarrituta. Horren arabera, kontu orokorra jendaurrean erakutsi da 15 egunez eta iragarkia argitaratu da 2017ko ekainaren 16ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, baina ez da erreklamaziorik, eragozpenik edota oharrik aurkeztu emandako epearen barruan (2017ko uztailaren 7an amaitu zen).

2.- EUZKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDEEK AURKEZTUTAKO AUKERAKO ZUZENKETA OSOA, EH-BILDUK DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN INGURUAN DAGOEN EZTABAIDARI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOARI DAGOKIONEZ

Udalbatzaren osoko bilkuran aurkeztu da, onetsi egin dadin, Gizarte ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Informazio Batzordeak uztailaren 19ko bileran emandako 71. irizpen-proposamena (egiaztagiria espedientean jaso da).

UDALBATZAREN ERABAKIA

Proposamena irakurri eta bozkatu ostean, Udaltzarak, aldeko hamaika botoren gehiengoarekin (bilerara bertaratutako Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotzien botoak eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzienak), aurkako hiru botoekin (bilerara bertaratutako Eusko Leioa taldeko hiru zinegotzienak) eta bost abstentziorekin (EH-Bildu Leioa taldeko hiru zinegotzienak eta Leioako Talde Popularreko bi zinegotzienak) erabaki du jarraian adierazitako aukerako zuzenketa osoa onestea, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek aurkeztutakoa. Honela dio, hitzez hitz:

*EH-BILDU UDAL-TALDEAK 2017KO EKAINAREN 16AN UDALAREN ERREGISTROAN
AURKEZTUTAKO MOZIORAKO, DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN
INGURUAN DAGOEN EZTABAIDARI BURUZKORAKO, AUKERAKO ZUZENKETA OSOA*

Ekainean, Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen diru-sarrerak bermatzeko errenta hobetzeko oinarrien dokumentua. Era horretara, bete egin zen euskal ganberak 2016ko abenduaren 15eko osoko bilkuran gizarte-laguntzen araudia aldatzearen inguruan onetsitako lege besteko proposamena. Testu horrek jaso du, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bitartez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren funtzionamenduari buruz egin zuen diagnostiko zehatza. Testuan, bestalde, organo betearazleak prestazio hori hobetzeko beharrezkotzat jo dituen epe laburreko eta luzeke proposamen zehatzak bildu dira. Proposamenok egun diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema arautzen duen araudian txertatu behar dira, honako lege hauek aldatuta: Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea, gaur egun indarrean dagoena eta azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatu zuena. Horregatik guztiagatik:

“Udaltzara honek Eusko Jaurlaritzaren taldeei eskatu nahi die aprobetxatu dezatela Eusko Jaurlaritzaren txostenak, Legebiltzarrek berak eskatuta egindakoak, ekarri duen aukera 95/2016 Legez besteko Proposamenaren bitartez; baita talde guztiak bat egin dezatela ere babeserako euskal sistema blindatzeko adostasun zabalekin, sistema hori baitugu gure autogobernuaren lorpen handienetarikoa bat eta, beraz, hurrengo hamarkadotan sendotu eta bermatu behar da”.

3.- BOZERAMAILEEN BATZORDEAK UZTAILAREN 21EAN ONETSITAKO MOZIOA, MIGUEL ANGEL BLANCOREN HERIOTZARI BURUZKOA:

Udaltzaren osoko bilkuran aurkeztu da, onetsi egin dadin, Bozeramaileen Batzordeak 2017ko uztailaren 21eko bileran onetsitako mozioaren testua, Miguel Angel Blancoren heriotzari buruzkoa.

UDALBATZAREN ERABAKIA

Proposamena irakurri eta bozkatu ostean, Udaltzarak, aldeko hamaika botoren gehiengoarekin (bilerara bertaratutako Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotzien botoak eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzienak) eta zortzi abstentziorekin (bilerara bertaratutako Eusko Leioa taldeko hiru zinegotzienak, EH-Bildu Leioa taldeko hiru zinegotzienak eta Leioako Talde Popularreko bi zinegotzienak), erabaki du ondoko adierazpen instituzionala onestea. Ildo horretan, aipatzekoa da Toki erakundearen antolaketa, jardura eta araubide juridikoaren araudiari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 100. artikulua aplikatu behar zaiola Desireé Ortiz de Urbina Marín zinegotziari; izan ere, bileratik alde egin zuen gai horri buruzko eztabaida hasi ostean, eta ez zen bozketan egin.

Miguel Angel Blancoren hilketatik eta basakeria haren aurka herritarrek eman zuten erantzun masibotik 20 urte betetzen direnean, Leioako Udalak:

- 1.- Atentatu hura gaitzesten du berriz ere, eta baita atentatu terrorista guzti-guztiak eta gure herrialdean pairatu dugun indarkeria ere.
- 2.- Bere hurbiltasun eta elkertasuna adierazten dizkie terrorismoaren eta indarkeriaren biktima guztiei, horientzat guztientzat egia, justizia, aitortza eta erreparazioa eskatuz.
- 3.- Hainbesteko mina sortu zutenei eskatzen diegu eragindako kalte bidegabe hura aitortu dezatela, bizikidetzaldi berri bat egituratzeko beharrezkoa den neurri gisa.
- 4.- Euskal gizarteak orain dela 20 urte eman zuen erantzunaren balioa nabarmentzen dugu, eta berriz ere deitzen dugu biktimen omenez deitzen diren ekitaldi guztietan parte hartzera.

Cuando se cumplen 20 años del asesinato de Miguel Angel Blanco y de la masiva respuesta ciudadana contra aquella barbarie, el Pleno del Ayuntamiento de Leioa:

- 1 - Reitera la condena de aquel atentado y de todos y cada uno de los atentados terroristas y de la violencia que hemos padecido en nuestro país.
- 2.- Muestra su cercanía y solidaridad a todas las víctimas del terrorismo y de la violencia, exigiendo verdad, justicia, reconocimiento y reparación para todas ellas.
- 3.- Emplazamos a quienes causaron tanto dolor, a que reconozcan el daño injusto causado, como medida necesaria para articular un tiempo nuevo de convivencia.
- 4.- Ponemos en valor la respuesta cívica que dio la sociedad vasca hace 20 años y reiteramos el llamamiento a participar en cuantos actos se convoquen en memoria de las víctimas.

II.- UDALBATZAK UDAL-GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGINDAKO KONTROLA ETA JARRAIPENA

4.- ALKATETZAREN 1669/17 DEKRETUAREN BERRI EMATEA, LEIOAKO UDALAREN BABES ZIBILERAKO PLANARI BURUZKOA

Osoko bilkuran, 1669/16 Dekretuaren berri eman zaio Udaltzari; alegia, Alkatetza Udaltzari onetsitakoa 2017ko ekainaren 27an. Jarraian transkribatu da:

ESP. ZK.: ALK-IDZ 36/17

“Udalak babes zibila eta larrialdiak antolatzeke eta kudeatzeke duen eskumena gauzatu, honako xedapen hauen bitartez onartu egin zitzaiona: Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.1. artikulua eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.f) artikulua; eta, lege horren 26.1.c) artikuluekin bat, Leioako funtsezko zerbitzua izanik.

Oinarria: aplikatu beharreko araudia; bereziki, apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretua, Larrialdiak Kudeatzeke Legearen testu bategina onetsi zuena.

Oinarria: Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bateginaren 13. artikulua araberaz, lege aitortuta duten eskumena gauzatzean, Udalerriek babes zibila ematen parte hartuko dute, haien eskumen-eremuan eta lege honen printzipioak errespetatu. Honako hauek dagozkie: a) Babes zibileko udal-egituraren eraketa bultzatzea. b) Babes zibileko udal plana egin eta onartzea. c) Babes zibilerako garrantzitsuak diren datuak biltzea eta jakitera ematea. d) Babes zibileko udal planeko baliabide mugigarrien katalogoa egitea (...)'.

Oinarria: babes zibileko planek izan behar dituzten gutxienezko edukiak, LABI Larrialdiei Aurregiteko Bidea delako planaren arabera. Ekainaren 24ko 153/1997 Dekretuak onetsi zuen plan hori; izan ere, beraren bidez onetsi egin zen "Larrialdiei Aurregiteko Bidea-LABI" deritzon Euskadiko Herri Babeseko Plana eta arautu egin ziren larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak.

Oinarria: badago udalak aurretik onetsitako plan bat, hain zuzen, 1990. urtekoa.

Oinarria: Imsa Gestores Europeos enpresari eskatutako planaren proposamenaren testua. Hura aztertuta, ikusi da bat datorrela Leioarako babes zibileko udal-plan batekin, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

Oinarria: idazkaritzaren eta Udaltzaingoen Burutzaren txostenak, ebazpen hau emateko arrazoitzat jo baitira.

Ordenamendu juridikoak eman dizkidan eskumenak erabiliz –zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. a), b), i), m) eta s) artikuluetakoak–, eta, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bateginaren 13.3. artikulua araberaz, agintari gorena naienez gero udal babes zibilaren alorrean, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Leioako Udalaren babes zibileko udal-planaren eguneraketa onestea (borren dokumentua ebazpen honi erantsi zaiola), beraren informazio-eranskinean izatera dinamikoa xedatuta; era horretara, ofizioz eguneratuko dira beharra antzematen denean.

Bigarrena.- Euskadiko Herri Babeseko Batzordeari igortzea adierazitako plana, homologatu dezan.

Hirugarrena.- Gardentasunaren alorreko betebeharrak direla eta, jendaurrean erakustea eta kontuan hartzea Leioako bizilagunek informazioa jasotzeko duten eskubidea, udal-eremuan gertatu daitezkeen arriskuei (naturari lotutakoak nahiz teknologikoak) eta udalaren babes zibileko plan berari dagokienez.

Laugarrena.- Ebazpen honen berri ematea Udaltzaingoiari; Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak Sailari eta, oro har, udalaren sail guztiei.

Bosgarrena. - Ebazpen honen berri ematea Udaltzari'.

Udalbatza jakitun geratu da.

5.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO EBAZPENAK, 2017-06-22TIK 2017-07-19RA

BITARTEAN:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.e) artikuluan xedatutakoari erreparatuz, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onartu zuen Toki Korporazioen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Araudiaren 42. artikulua betez, osoko bilkuraren espedientean jaso da, aztertu egin dadin, Alkatetzak epigrafean aipatutako epean emandako dekretuen kopia; nolana ere, dagokien tokian artxibatu ahalko dira gero.

Udalbatza **jakitun** geratu da.

6.- PREMIAZKO MOZIOAK

Ez da premiazko moziorik aurkeztu zati honetan.

7.- GALDE-ESKEAK

Eta hogeita bi ordu eta hogeita hamar minutu direnean, Alkatetza Udalburutzak egintza amaitutzat jo du eta Idazkaritzari dagokion akta idazteko agindu dio. Adostutako baldintzetan onetsi egin da eta nik neuk, idazkari nagusia naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARI NAGUSIA